

UDALAK BILBO ZAHARREKO, SAN FRANTZISKOKO ETA ZABALAKO MERKATARITZA BERRAKTIBATZEKO 'DENDART' ARTE URBANOKO PROIEKTUAREN BIGARREN EDIZIOA GARATUKO DU

- **DendART** ekimenaren helburua hutsik dauden merkataritza-lokalak eraldatzea eta edertzea da, bertako pertsianak artelan bihurtuz tokiko kontsumoa sustatzeko eta negozio berriak irekitzeko.
- BilbaoHistorikorekin eta Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako merkatarien elkartearekin lankidetzan, eta Eusko Jaurlaritzak finantzatuta, merkataritza eta artea batzen dituen proiektu honen komisarioa Kiko Alcazar da, eta jarduerarik gabeko 10 lokal ditu jarduera-eremu gisa, Hernani, La Laguna, Aretxaga, Mariaren Bihotza plaza, Cortes eta San Frantzisko kaleetan.
- **DendARTek** inguruan merkataritza aktibatzeke duen helburu berarekin, Bilboko Udalak, Bilbao Ekintzaren bitartez, 21 laguntza eman ditu hutsik dauden lonjak alokairuaren bidez aktibatzeke, eta 29 laguntza, merkataritza-lokalen kanpoko itxura bisuala hobetzeko.

(Bilbo, 2026ko urtarrilak 22).- **Bilboko Udalak DendARTen bigarren edizioa jarri du abian.** Ekimena arte urbanoko proiektua da, **Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalan** itxita eta jarduerarik gabe dauden saltokien pertsianak eta paretak gune erakargarri bihurtzeko. Proiektu horren bidez, **merkataritzaren eta negozio berrien** sektorea **biziberritu eta aktibatu** nahi da.

Bilboko Udalak bultzatuta, **Eusko Jaurlaritzak** finantzatuta, eta **BilbaoHistoriko eta Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako merkatarien elkartearekin lankidetzan, DendART** merkataritza eta gizartea biziberritzeko udal-ekintzako plan oso baten barruan dago, hiriko hiri-paisaia eraldatu eta edertuz.

Pertsianak apaintzeko ekimenaren bigarren edizio honetarako aukeratutako guneak **Hernani, La Laguna, Aretxaga, Mariaren Bihotza plaza, Cortes eta San Frantzisko** kaleak dira. Hala, bisitariantzako merkataritza-eremua handitu nahi da eta inguru horretan lokalak alokatzea eta erostea sustatu.

Edizio honetako **10 mural artistikoak ospe handiko 5 artistak** sortu dituzte: **Bea Apariciok, María Altunak, Camilo Garcíak eta Elisabeth Pérezek, Kiko Alcázar komisarioak** ingurunea edertzen eta hobetzen duten sorkuntzak egin dituzte. **DendARTen** lehen edizioan eraldatu ziren 10 obrekin batera, oraingo 10 obra hauek **Bilboko kulturari eta historiari egindako keinuak** irudikatzen dituzte, elementu eta pertsonaia ikonikoekin, besteak beste Maria Diaz Harokoa, Pedro Telesforo Errazkin, Kika barkillo-saltzailea, Maria Maeztu edo saregileak. Hala, proiektua **ekimen komertziala bihurtuko da, baina baita kulturala ere.**

DendART azokaren bigarren edizio honetan, halaber, **doako bisita gidatuak egingo dira herritarrentzat**. Bisitak **larunbatetan** izango dira, **otsailaren 7an eta 14an**, 12:00etatik aurrera. Jardueretan aurretik izena emateko, posta elektronikoa bidali beharko da helbide hauetara: **bhk@bilbaohistoriko.org** / **asociacion@sanfranbilbizabala.eus** edo **685031110/609 693 679** telefonoetara deitu.

"DENDART" PROGRAMAN PARTE HARTU DUTEN ARTISTAK:

- **KIKO ALCÁZAR:**

Artista autodidakta da eta bere obretan kolorez beteriko unibertso batean esentzia atenporala adierazten saiatzen da. Gaur egun, Madrilén duen tailerretik egiten du lan. Haren lanaren ezaugarri da tasun pikturikoen eta animatuen nahasketa, eta argazkiaren eta pinturaren arteko mugak lausotzen ditu. Ez du edizio digitala ukatzen; aitzitik, funtsezko tresna gisa erabiltzen du bere sormeneko prozesuan, eta sortzen dituen obra guzti-guztiak dira asmoen adierazpena. Magiaz eta berezitasunez beteriko unibertso bat. Londresko Tate Modernen sari bat jasotzeak eman zion gogoak bultzatuta, haren lana garatzeari ekin zion eta nazioarteko artistak erretratatu ahal izan ditu, hala nola Shirley Bassey; Grace Kellyren irudi bat ere sortu du, gaur egun Monakoko Alberto printzeak duena bere bilduman.

- **MARÍA ALTUNA:**

Ikerlari, sortzaile, artisau eta ingurukoarekin konprometitutako hezitzaile hau ilustrazioaren eta zeramikaren bidez adierazten da. Ilustrazioari esker, justizia-ekintzat hartzen dituen emakumeen memoria berreskuratzearekin lotutako hainbat proiektu egin ahal izan ditu, bai eta euskal historiarekin eta kulturarekin lotutako beste batzuk ere. Doktorego-tesia amaitu berri du, arte- eta hezkuntza-prozesuetatik eratorritako ikaskuntzak lotzen saiatuz.

- **BEA APARICIO:**

Arte Ederretan lizentziaduna, ilustratzaile-lana irakaskuntzarekin uztartzen du. Marrazkia bere zentzurik zabalenean interesatzen zaio: tresna ireki gisa, espazioekin, pertsonekin eta ideiekin loturak sortzeko gai dena. Horren bidez, kezkak, bizi-filosofiak eta munduari begiratzeko moduak partekatzen dituztenekin konektatzeko modu bat aurkitzen du. Bere ideiak espazio publikoan partekatzeak aukera ematen dioten muralak egiten ditu, topaleku gisa duen potentziala aprobetxatuz; gainera, grafikaren komunikazio-potentziala eta sorkuntza-prozesuan ikuspegi feminista txertatzearen garrantzia aprobetxatuz.

- **CAMILO GARCÍA:**

Bere burua diziplinarteko artista bisual gisa identifikatzen duen ilustratzaile honek estilo bakar eta bereizgarria du ezaugarri, eta bere kalitateagatik eta benetakotasunagatik nabarmentzen diren lanak sortzen ditu. Ikus-entzunezko komunikatzailearen lanbidea marrazketarekin uztartzen du, narratiba grafikoak garatuz eta pertsonaiak eta egoerak sortuz, istorioak kontatuko dituen eta pertsonekin bisualki konektatuko duen artea eskaintzera bideratutako ikuspegiarekin, betiere. Komiki-proiektuak, eleberri grafikoak, muralismoa, pertsonaien diseinua, argitalpen-diseinua, 2D animazioa, marrazketa eta ilustrazioa garatu ditu hainbat teknika analogiko eta digitaletan, baita serigrafiako

inprimaketa-teknikak ere, argitalpenak eta kultura-proiektuak aberasten dituzten ilustrazioak eginez.

- **ELISABETH PÉREZ:**

Marrazkilari, irakasle eta editore honek Arte Ederrak ikasi zituen eta ikus-entzunezkoetan espezializatu zen, eta Italiara bidaiatu zuen eszenografian, argitalpen-diseinuan eta erakusketen diseinuan trebatzeko. Bere jatorriak eta paisaia industrialak biziki markatu dute bere lana, naturarekiko, paisaiarekiko eta geometriarekiko interes handia izanik. Grabatua, collagea edo gouachea lantzen dituzten teknikak aztertzen ditu, batez ere liburu-euskarrian lan eginez, baina baita antzerkiko, ikus-entzunezko, hezkuntzako, komunikazioko eta/edo horma-irudietako proiektuetarako ere. Horretarako, hainbat kultura-proiektu koordinatzen ditu, eta inprimatzeko artisau-teknikak berreskuratzeko lan garrantzitsua egiten hasi da.

LONJA HUTSAK ALOKAIRU BIDEZ AKTIBATZEKO ETA HAIEN ITXURA BISUALA HOBETZEKO 2024/2025 LAGUNTZAK

Bilboko Udalak hiriko merkataritza sustatzeko duen Ekintza Planaren esparruan, hutsik dauden lonjak alokairuaren bidez aktibatzeke laguntzen programaren helburua da hutsik dauden espazioak aktibatzen laguntzea, itzuli ezin diren dirulaguntzak emanez, merkataritza-lokalen alokairuak eta horiek kobratzea bermatuko duten abalak ordaintzeko. 2024/2025 deialdian **21 laguntza** eman dira. Horietatik **4 Bilbo Zaharrean, San Frantziskon eta Zabalan kokatutako lokaletakoak dira, eta 17 Alde Zaharrean. Hainbat esparrutako** negozioak dira, hala nola diseinua, zeramika, elikadura, osagarriak, ile-apaindegiak, jostintza edo ehungintza.

Merkataritza-lokalen kanpoko itxura bisuala hobetzeko dirulaguntzen programari dagokionez, Zubirik Planaren barruan kokatzen da, inguru horretan establezimenduak birgaitzeko erronkarekin, eta 2024/2025 deialdian **29 laguntza** eman dira; horietatik **4 lokal Bilbo Zaharrean daude, 3 Zabalan eta 22 San Frantziskon**. Era berean, askotariko negozioak dira horiek ere: ehungintza eta osagarriak, ostalaritza, liburu-dendak, arte-galeriak, elkarte soziokulturalak, ile-apaindegiak...

SARE SOZIALAK:

- **BILBOKO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- **BILBAO EKINTZA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO TURISMOA:** [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)

EL AYUNTAMIENTO DESARROLLA LA SEGUNDA EDICIÓN DE 'DENDART', UN PROYECTO DE ARTE URBANO PARA REVITALIZAR EL COMERCIO EN BILBAO LA VIEJA, SAN FRANCISCO Y ZABALA

- *DendART* es una iniciativa que tiene como objetivo transformar y embellecer los locales comerciales que se encuentran vacíos, convirtiendo sus persianas en obras de arte para fomentar el consumo local y la apertura de nuevos negocios.
- En colaboración con BilbaoHistoriko y la asociación de comerciantes de Bilbao La Vieja, San Francisco y Zabala, y financiado por el Gobierno Vasco, este proyecto que une comercio y arte está comisariado por Kiko Alcázar y tiene como ámbito de actuación 10 locales sin actividad de las calles Hernani, La Laguna, Aretxaga, Plaza Corazón de María, Cortes y San Francisco.
- Con ese mismo objetivo que tiene *DendART* de activar el comercio en la zona, el Ayuntamiento de Bilbao, a través de Bilbao Ekintza, ha otorgado 21 ayudas para la activación de lonjas vacías mediante el alquiler y 29 ayudas para la mejora del aspecto visual externo de locales comerciales.

(Bilbao, 22 de enero 2026).- El Ayuntamiento de Bilbao ha puesto en marcha la **segunda edición de *DendART***, el proyecto de arte urbano que convierte persianas y paredes de comercios cerrados y sin actividad de **Bilbao La Vieja, San Francisco y Zabala** en espacios atractivos, con los que se pretende **revitalizar y activar** el sector del **comercio y los nuevos negocios**.

Impulsada por el Ayuntamiento de Bilbao y financiado por el **Gobierno Vasco**, y en **colaboración con BilbaoHistoriko y la asociación de comerciantes de Bilbao La Vieja, San Francisco y Zabala**, *DendART* se enmarca en un completo plan de acción municipal para la **revitalización comercial y social**, transformando y embelleciendo el paisaje urbano de la Villa.

La zona seleccionada para la decoración de las persianas de esta segunda edición de la iniciativa abarca **las calles Hernani, La Laguna, Aretxaga, Plaza Corazón de María, Cortes y San Francisco**, con el propósito de ampliar la zona comercial para las personas visitantes y favorecer el alquiler y compra de locales en la zona.

Los **10 murales artísticos** de esta edición han sido creados por **5 artistas de reconocido prestigio: Bea Aparicio, María Altuna, Camilo García y Elisabeth Pérez**, **comisariados por Kiko Alcázar**, han llevado a cabo las creaciones que embellecen y mejoran el entorno. Las 10 obras, que se suman a las 10 que se transformaron durante la primera edición de *DendART*, representan **guiños a la cultura e historia bilbaína**, con elementos y personajes icónicos como María Díaz de Haro, Pedro Telesforo Errazquin,

Kika La Barquillera, María de Maeztu o las rederas, entre otros, convirtiendo el proyecto en una **iniciativa comercial, pero también cultural**.

Esta segunda edición de DendART también vendrá acompañada de **visitas guiadas gratuitas para la ciudadanía**, que se llevarán a cabo los **sábados 7 y 14 de febrero**, a partir de las 12:00 horas. Para poder inscribirse previamente a estas actividades, será necesario enviar un correo electrónico a las siguientes direcciones **bhk@bilbaohistoriko.org / asociacion@sanfranbilbizabala.eus** o contactar en los teléfonos **685031110 / 609 693 679**.

ARTISTAS PARTICIPANTES EN 'DENDART':

- **KIKO ALCÁZAR:**

Es un artista autodidacta que trata de plasmar en sus obras una esencia atemporal en un universo lleno de color. Actualmente desarrolla su labor desde su taller madrileño. Su obra se caracteriza por una mezcla de cualidades pictóricas y animadas, difuminando los límites entre la fotografía y la pintura. No reniega de la edición digital, sino que la adopta como una herramienta esencial en su proceso creativo, haciendo de todas y cada una de sus obras una auténtica declaración de intenciones. Un universo lleno de magia y distinción. Animado tras lograr un premio de la Tate Modern de Londres se lanzó de lleno a desarrollar su trabajo y tiene el honor de haber podido retratar a artistas internacionales como Shirley Bassey o recrear una imagen de Grace Kelly que hoy en día pertenece a la colección del Príncipe Alberto de Mónaco.

- **MARÍA ALTUNA:**

Esta investigadora, creativa, artesana y educadora comprometida con el entorno que la rodea, se expresa a través de la ilustración y la cerámica. La ilustración le ha permitido realizar varios proyectos relacionados con la recuperación de la memoria de las mujeres que considera actos de justicia, así como otros relacionados con la historia y la cultura vascas. Acaba de finalizar su tesis doctoral, tratando de vincular aprendizajes derivados de procesos artísticos y educativos.

- **BEA APARICIO:**

Licenciada en Bellas Artes, compagina su trabajo como ilustradora con la docencia. El dibujo le interesa en su sentido más amplio: como una herramienta abierta, capaz de generar vínculos con los espacios, las personas y las ideas. A través del mismo, encuentra una forma de conectar con quienes comparten sus inquietudes, sus filosofías de vida y sus maneras de mirar el mundo. Realiza murales que le permiten compartir sus ideas en el espacio público, aprovechando su potencial como lugar de encuentro; aprovechando además el potencial comunicativo de la gráfica y la importancia de incorporar una perspectiva feminista al proceso creativo.

- **CAMILO GARCÍA:**

Este ilustrador, que se identifica como artista visual interdisciplinar, se caracteriza por un estilo único y distintivo, creando obras que destacan por su calidad y autenticidad. Compagina su profesión de comunicador audiovisual con el dibujo, en el desarrollo de

narrativas gráficas y creación de personajes y situaciones, con un enfoque que se centra en ofrecer arte que cuente historias y conecte visualmente con las personas. Ha desarrollado proyectos de historieta, novela gráfica, muralismo, diseño de personajes, diseño editorial, animación 2D, dibujo e ilustración en diferentes técnicas analógicas y digitales, así como técnicas de impresión en serigrafía, aportando ilustraciones que enriquecen publicaciones y proyectos culturales.

- **ELISABETH PÉREZ:**

Esta dibujante, profesora y editora estudió Bellas Artes especializándose en audiovisuales, y viajó a Italia para formarse en escenografía, diseño editorial y diseño de exposiciones. Sus orígenes y el paisaje industrial han marcado fuertemente su trabajo, siendo una gran interesada de la naturaleza, el accidente y la geometría. Explora técnicas que abarcan desde el grabado, el collage o el gouache, trabajando fundamentalmente en soporte libro, pero también para proyectos de teatro, audiovisual, educación, comunicación, y/o murales, coordinando diversos proyectos culturales, además de iniciar un importante trabajo de recuperación de técnicas artesanales de impresión.

AYUDAS PARA ACTIVACIÓN DE LONJAS VACÍAS MEDIANTE ALQUILER Y MEJORA DEL ASPECTO VISUAL 2024/2025

En el marco del Plan de Acción del Ayuntamiento de Bilbao para impulsar el comercio de la Villa, el programa de ayudas para la activación de lonjas vacías mediante el alquiler tiene como objetivo favorecer la activación de espacios vacíos, a través de la concesión de ayudas económicas no reembolsables, para hacer frente al pago de alquileres de locales comerciales y de avales que garanticen su cobro. En la convocatoria 2024/2025 se han otorgado **21 ayudas**, de las cuales **4 pertenecen a locales situados en Bilbao la Vieja, San Francisco y Zabala, y 17 en el Casco Viejo**, con negocios que se dedican a **diversos ámbitos** como el diseño, la cerámica, la alimentación, los accesorios y complementos, la peluquería, la costura o el textil.

En cuanto al programa de ayudas económicas para la mejora del aspecto visual externo de locales comerciales, enmarcado en el Plan Zubirik con el reto de rehabilitar establecimientos en la zona, en la convocatoria 2024/2025 se han otorgado **29 ayudas**, de las que **4 locales están situados en Bilbao La Vieja, 3 en Zabala y 22 en San Francisco**. De la misma manera, se trata de negocios dedicados al ámbito textil y complementos, hostelería, librerías, galerías de arte, asociaciones socioculturales, peluquerías... entre otros.

REDES SOCIALES:

- BILBAO UDALA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- BILBAO EKINTZA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- BILBAO TURISMO: [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)